



2018-2025 PLAN ESTRATEGIKOA



PARTEKATUTAKO BALIO, ERRONKA ETA KONPROMISOEN GUTUNA

TOLOSALDEA INKLUSIBO ETA SOLIDARIOA

osatzeko asmo sendoa dugu, eta konpromisoa hartzen dugu komunitate kultu, ireki eta tolerantia eraikitzeko. Ziurtatuko dugu, modu solidarioan, pertsona guztiek ongizaterako eta lan egonkor, gogobetegarri eta kalitatezkoa izateko eskubidea erabat baliatzen dutela. Guztiok elkarrekin berdinen artean partekatutako Tolosalde horretarantz egingo dugu bidea, genero, jatorri eta baldintza soziala dela-eta inork diskriminaziorik jasan ez dezan.

TOLOSALDEA AKTIBO ETA KOLABORATIBOA

eratzeko asmo helburu. Elkarlanerako eta lankidetzarako balio berriak zabalduko ditugu. Aurrerapausoak emango ditugu, modu kolektiboan eta partekatuan, enpresa, gizarte eta kultura arloan proiektu berriak eraikitzeko.

KONEKTATUTAKO TOLOSALDEA

dugu jomuga. Gure eskualdeko pertsona guztiek, eremu, baserri eta enpresa guztiek, edozein lekutan kokatuta daudela ere, Internetarako sarbidea izateko eskubidea dute eta eskubide hori bermatuko dugu.

TOLOSALDEA EUSKALDUNA

guztiz euskalduna, dugu amets. Komunitate erabat euskalduna eraiki nahi dugu, eta horretarako, euskararekiko gure konpromisoa zabalduko dugu gure eskualdeko bizitza ekonomiko eta sozialeko esfera guztietan.

TOLOSALDEA NATURALA

izan nahi dugu, eta eskualdeko herrigune eta industria-gune guztien bihotzera eraman nahi dugu natura: gure errepide-sarea naturalizatuz, artifizialduta dauden inguruneak lehengoratzuz, ibai-arroak berreskuratuz eta bertako biodibertsitatea leheneratuz.

OINEZKO TOLOSALDEA

egin nahi dugu ibil-lan-ibilian. Pixkanaka ibilgailu pribatua erabiltzeari utzi nahi diogu, garraio kolektibo eraginkor baten mesedetan. Ahal dela oinez eta bizikletaz

egingo ditugu batetik besterako joan-etorriak, eta horretarako prestatu eta egokituko ditugu gure kale eta espazio publikoak.

ZERO HONDAKIN TOLOSALDEA

dugu helburu, eta konpromisoa hartzen dugu eko-erantzukizunean hezteko eta gure hirietako eta industriako hondakinak gaika biltzea erraztuko duten baliabide teknikoak jartzeko.

ENERGIA-KONTSUMO IA ZEROKO TOLOSALDEA

izateko asmo irmoa dugu. Gure eraikin publiko, gure auzo, saltoki eta fabrikak pixkanaka energia-eraginkortasun goreneko eta energia berriztagarriak sortzeko programetara bildu nahi ditugu, ahal den kasu guztietan.

TOLOSALDEA EKO-ENPRESARIALA

hezur-mamitu nahi dugu. Enpresa-ehun berritzailea, kolaboratiboa eta pertsonetikiko arduratsua nahi dugu. Ingurumenarekin beste era bateko harremanean oinarrituko den kultur bat ezartzera animatuko ditugu gure enpresak eta saltokiak.

TOLOSALDEA EKINTZAILEA

izaten jarraitu nahi dugu. Aintzat hartzen ditugu ekintzaileak, eta gure eskualdean enpresa, kultura eta gizarte arloko ekimenak sortzea nahi dugu, gure etorkizun partekatua gorpuzteko.

4.0 TOLOSALDEA

dugu helburu, eta gogo onez egingo dugu lan 4.0 industria garatzeko, gure enpresen talentua, sormena eta berrikuntza oinarrian direla.

LANDA-EREMUKO TOLOSALDEA

izan nahi dugu, hezur eta mami. Gure landa-eremuan, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jardueren profesionalizazioa eta modernizazioa bultzatuko dugu. Baserria leku erakargarri bihurtuko dugu eta baserriko bizimodua lehiakor, gure landa-eremuko biztanleen piramidea gaztetzeko, nekazaritza-ustategiak feminizatze eta guztion artean lurraldearen kudeaketa iraunkorrari eusteko.